

46 ■ Maskaraden lehenjaia, Atharratzen



Bihar 09:30ean egingo dute barrikada haustea, eta 15:30ean, maskaraden agerraldi nagusia.



49 ■ Barricadak ireki du barrika

Nafarroako Sagardo Egileen Elkarteak hasiera eman dio denboraldiari, Aldazko Martitxonean.

Eten ziren hariei tiraka

Alberto Barandiaran
BERRIAko kazetari eta
idazleak irabazi du
III. Tene Mujika Beka

ARANTZAZU MUÑOZ
Donostia

Besteak beste, «pertsonaiak, gaiak eta egoerak pisuzkoak direlako; euskal gizartearentzat interesa dutelako; eta, gainera, kateatuta datozelako» irabazi du Alberto Barandiaranek (Altsasu, 1964) III. Tene Mujika Beka. Aurrez egindako bost erreportajeren alde ezkutua erakusteko helburua du Barandiaranek proiektuarekin. Landutako gaiak eta pertsonaiek gogoan utzi zioten arrastoa hartu, eta ustez itxita zegoen atea zabalduko du.

Bost lan aurkeztu zituzten bekkara, eta aho batez hartu zuen erabakia epaimahaia, Elixabete Garmendiak, Pruden Gartzia eta Lorea Agirre BERRIAko estilo ardura-dunak osatuak. Kazetaria denez, ongi ulertzen du Garmendiak Barandiaran: «Zenbat aldiz gertatzen ote da gai batzuk bere hartan agortzea. Baina beste gai batzuk zintzilik geratzen dira».

Barandiaranek langai dituen bost erreportajeak badute ardatz bat: biolentzia politikoa. Baina garaia eta lekuak desberdinak dira. *Higinia Liz Aiestaranen argazki galdua* Zuraukin jaio (Nafarroa) eta Auschwitzten hildako (Polonia) emakumearen historia da. Barandiaranek 1995ean argitaratu zuen erreportajea, *Egunkaria*-n, baina ez zuen lortu Aiestaranen argazkiri lanaren lekukotza egiteko. Zintzilik geratu zitzaion.

Hautatutako beste erreportaje bat Argentinako diktaduraren garaian desagertutako euskaldun jatorriko jendeari buruzkoa da: *Cordobako senidea*. Hamar bat lagunen lekukotasuna jasota Buenos Airesen etxera itzultzekotan zela, handik 1.500 kilometrorra dagoen Cordobatik deia jaso zuen, beste kasu baten berri eman nahirik. Egokierarik izan ez zuenez, ez zion deitu pertsona hari, baina harra barruan geratu zitzaion.

Nicolasa Agirrezabalagaren *gurutzea* hiltzera eraman aurretik Gumerindo Lizarrako kaputxinoak konfesatutako 22 urteko mitrikuarrari buruzkoa da. Gumerindok 300 preso baino gehiago konfesatu zituen 1937tik 1941era Zaragozako presondegian, eta Agirreza-balagak bereziki hunkitu zuen. Gertaera haren inguruan ezer as-



Alberto Barandiaran, Tene Mujika bekako proiektua auzketzen. J. C. RUIZ / ARGAZKI PRESS.

korik ikertu gabe dago, eta egoera normal batean edozein senidek egingo lukeen lana egin nahi du Barandiaranek.

2004an Aski Da plataformak Jesus Ulaiarri Etxarri Aranatzaren egindako omenaldian izan zen Barandiaran. Egun hura abiapuntu hartuta, ETAK Ulaiar hil zuen urtea ekarri nahi du gogora kazetariak *Jesus Ulaiarren garaia* erreportajea.

Azkena, 2004ko martxoaren 11ko Madrilgo atentatuei buruzkoa da: *Martxoaren 11ko bi ordu*. Goiz hartan leherketaren lehen berriarekin esnatu zen kazetaria. Madrilera joan eta han gertatzen ari zena kontatzeko beharra sentitu zuen. 09:50ean autobus geltokian zegoen 10:00etako Madrilera-ko autobusa hartu ala ez zalan-tzan. Azkenean ezin izan zuen hartu, eta beti damutu zaio.

BESTE KONNOTAZIO BATEKIN. Barandiaran ez da dagoeneko erreportaje haiek egin zitueneko pertsona bera. Esperientzia handiagoa du, eta bizipen gehiago. Orduko gai, egoera eta pertsonaiek, beraz, beste era bateko konnotazioa izango dute liburuan. Garmendiaren ustez, bost gai horiek urteetan atera izan baditu, «horrek esan nahi du den-

borak aberastu egin dituela eta beste ikuspegi bat ere eman deza-keela». Proiektu hau euskarazko kazetaritzaren barruan pauso bat izan liteke, Garmendiarentzat, «askorik landu gabeko gaia delako metakazetaritza».

Urtebete dauka orain Barandiaranek liburua idazteko, eta 2009ko udaberrian argitaratu nahi du Elkarrek. Izan ere, argitaletxeak berak eta Debako Udalak elkarlanean antolatzen dute beka, orain dela hiru urtetik, Euskal Herriko historia hurbilaz biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketak eta ikerketak bultzatzeko.

Ez da Barandiaran lehen liburua izango, hala ere. 1998an *Ez zaitzugu ahaztu* euskal jatorriko argentinarrak desagerraraziaren kronika argitaratu zuen Susarekin, eta *Pasionaria* Dolores Ibarruriren biografia Elkarrekin; 2000an, *Gaizkileen faktoria* argitaratu zuen *Euskaldunon Egunkaria*-rekin; eta 2005ean *Mundu txikia* (Susa, 2005) ipuin liburua.

Egunkaria-n lan egin zuen Barandiaranek 1990etik itxi zuten arte, 2003ko otsailaren 21 arte; eta gauregun BERRIAN ari da. Argia sarria bi aldiz irabazitakoa da: 1991n eta 1999an; eta Rikardo Arregi sarria behin, 1995ean.

ALBERTO BARANDIARAN Kazetaria eta idazlea

«Kazetaritzako ezkutuko alde horiek obsesio txiki bihurtzen zaizkit»

A. M.
Donostia

Ezkutuan geratutakoaren beste alde bat erakustea posible dela sinetsi nahi du Alberto Barandiaranek eta horretan saiatuko da Tene Mujika bekaren bidez argitaratuko duen lanean, analisia eta gogoeta bidelagun hartuta.

Proiektuan diozu kazetari gisa markatu zaituzten bost erreportajeren ezkutuko alde erakutsinahi duzula. Ezkutuko alde horrek zer garrantzi dauka?

Niretzat, handia, kazetaritzaren ezkutuko alde horiek obsesio txikiak bihurtzen direlako. Bere garaian atera ziren erreportajeandako, seguru asko, ez oso handia, horiek hau gabe ere bizi litezkeelako, eta irakurgarriak eta interesgarriak izan daitezkeelako, edo izan zitezkeelako bere garaian. Baina ezkutuan geratutako istorio horiekin beste alde bat erakustea posible dela sinetsi nahi dut. Ez dakit beste erreportaje bat izango diren, baina beste ikuspegi batetik landutako beste erreportaje bat bai, seguru.

Ezkutuko liburua eraman eta erakustea erabaki baduzu, agertu zenak baino garrantzi handiagoa dauka?

Ez. Batzuetan, moztu egin behar duzu. Historia gaiekin askotan gertatzen da: zerbait lantzen hasi, eta nonbait jarri behar duzu muga, bestela hariak toki guztietatik atera eta gal zaitezkeelako haiei ja-

rraituz. Baina hari horiek dantzan jarraitzen dute askotan, eta hari horietatik beste istorio batzuk agertzen dira, beste pertsona batzuk. Edo aurretik elkarrizketatutako pertsona beraren beste aurpegi bat.

Aurretik landutako gaiak landuko dituzu berriro. Nola aldatu da lana garai bateko bost erreportaje haiei dagokienez?

Bostak desberdinak izango direla uste dut. Bortizkeria eta heriotza da lotura, baina desberdinak dira. Oraingo lan honetan, oroitzapenetik berreskuratu beharko dut asko, eta hori arriskutsua da, oroimena traidorea baita beti, baina xehetasun guztiz emango ditut eskuetan ditudan datu guztiak. Alde horietatik, kazetaritza lana izango da, ezer baino gehiago.

Estiloa ere aldatuko da?

Ez dut oso garbi, idatzi egin behar ditudalako oraindik. Pentsatzen dut lehen pertsona erabili behar-arak arazoak emango dizkidala, baina saihestezina da.

Metakazetaritza aipatu da, hori nola egiten da?

Egia esanda, ez dakit. Pentsatzen dut kazetaritzari buruzko analisia, gogoeta, hausnarketa, deitu nahi duzun bezala, izango dutela testuek, eta horregatik esango zuten. **Euskarazko kazetaritzaren barruan pauso bat izango dela esan du epaimahaiko Elixabete Garmendiak.**

Hitz handiak dira horiek.

Amets Arzallus eta Jose Agirre

Bertso bazkaria

12 LARUNBATA 14:00 ★ Kafe Antzokian
Sarrera: 20 e. ★ Antolatzailea: Zenbat Gara Elkarte